

XUXEN II IXA EHUko INFORMATIKAKO IKERTALDEAK EGIN DU, UZEI ETA HIZKIA ENPRESEKIN LANKIDETZAN

Euskarazko zuzentzaile ortografikoaren bigarren bertsioa aurkeztu dute

■ Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadi-Akitania lankidetzaren programaren dirulaguntzari esker osatu dute zuzentzailearen bigarren bertsioa

■ 73.000 hitz biltzen ditu eta, horiez gain, hitz bakoitzaren deklinabide osoa ere zuzentzen ahal du euskarazko zuzentzaileak

■ Jadanik lau mila erabiltzaile inguru dituela adierazi du Iñaki Alegria EHUko irakasle eta IXA taldeko kideak

I. Petxarroman / Donostia

EHU-KO Donostiako Errektoreordetzan aurkeztu zuten atzo Xuxen II euskarazko zuzentzaile ortografikoa. Zuzentzaile ortografikoa egin duten UZEIko kide Mirian Urkiarekin eta IXA ikertaldeko Iñaki Alegriarekin batera izan ziren Josune Ariztondo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburordea, Agustín Elizegi Eusko Jaurlaritzako Informatika eta Telekomunikazioetarako zuzendaria eta Iñaki Goirizelaia EHUko Unibertsitate eta Enpresen arteko Harremanetarako errektoreordea.

Xuxen II IXA EHUko Informatika Fakultateko IXA taldeak, UZEI eta Hizkia enpresak egin dute, elkarlanean. Zuzentzaile ortografikoaren bigarren bertsioa lehena baino «askoz ere azkarrago eta aberatsagoa» dela azaldu zuten atzo proiektu berriko egileek. Gainera, Interneten dago jadanik, erabiltzaileen eskura, Eusko Jaurlaritzaren web orrian.

Zuzentzaileak Euskaltzaindiaren azken arauak bere egin ditu. 73.000 hitz eta horien deklinabide osoa eza-



Xuxen II euskarazko zuzentzaile ortografikoa aurkezteko atzo egindako agerraldia.

gutuz eta zuzentzen ditu. Gainera, zuzentzaile ortografikoa az gain, analizatzaile morfologikoa ere badu, eta, beraz, gai da erro batetik deklinatutako edozein forma ulertzeko.

Bertsio berria Office97an sartu dute, eta Word, Power Point eta Excel programetan erabili ahal izango da, arazorik gabe. Hala ere, PC-Win-

dows ordenadoreetan baino ez da erabiltzen ahal.

Iñaki Alegria IXA taldeko kideak azaldu zuenez, Xuxen II 3.500 erabiltzaile inguru ditu jadanik. Eusko Jaurlaritzaren Euskadi net webgunetik 3.144 eskaera jaso ditu jadanik, eta, horrez gain, hainbat erakunde, enpresa eta elkartetan jadanik erabil-

tzen ari dira zuzentzaileak: Nafarroako Gobernuak, NUPen, Deustuko Unibertsitatean...

Josune Ariztondok oso ontzat jo zuen IXA egindako lana, eta gogoratu zuen Eusko Biziberritzeko Planak berebizikotzat jotzen duela euskara garatzea teknologia berrien alorrean.

berrikuntzak

Xuxen II zuzentzailearen aukera berriak

■ 73.000 hitz eta haiegandik eratorritako beste milaka dakartza Xuxen II. zuzentzaile ortografiko berriak. Lehen bertsioa baino azkarragoa da, eta aukera handiagoak ematen ditu. Ondorengoak dira bigarren bertsio honek eskaintzen dituen berrikuntza eta aurrerakuntza nagusiak:

Hitz eratorriak • Morfologian oinarritutako zuzentzailea da eta, deklinatu gabeko hitzez gain, flexioa, eratorpenak eta hitz elkarketak ezagutzen ditu.

Euskara estandarra • Hizkuntza estandarren alde egiten du zuzentzaileak, alegia, ez ditu ontzat ematen forma dialektalak. Hala ere, batzuk eza gutzen ditu, eta haren ordezkariak proposatzen du: esaterako *handi*, eta ez *haundi*.

Hiztegi propioa • Zuzentzailearen 2. bertsio honek hainbat erraztasun ematen ditu hiztegi pertsonalak sortzeko. Esaterako, *Timor* herrialdearen hitza ezagutzen ez duenez, azpimarratuko du zuzentzaileak, erabiltzaileak bere hiztegi propioan sartu arte.

Euskaltzaindiaren azken arauak • Euskararen Akademiaren arauak biltzen ditu, hain zuzen 1999ko maiatzaren arte emandakoak. Horiez gain, UZEIren berme linguistikoa izan dute eta Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* eta Elhuyarren hiztegiak erabili dituzte. Horiez gain, EUSKALDUNON EGUNKARIAK eta UZEI berak eginak dituzten hizkuntz korpusak ere baliatu dituzte.

Iñaki Alegria • IXA IKERTALDEKO KIDEA •

«Gramatika zuzentzailea ere egin nahi dugu»

DUELA 12 urte sortu zen IXA taldea, EHUko Informatikako Fakultatean. Ordutik euskara eta informatika uztartzen jardun du hizkuntzalari eta informatikari talde batek. Lan horren emaitza da Xuxen zuzentzailea, baina etorkizunerako erronka ugari dituzte.

■ Zer erronka eta proiektu dituzue etorkizunerako?

Unibertsitatean gaudenez, guri interesatzen zaigu batez ere ikerkuntza, sakonekoa, formalismo linguistikoa zehatzak izatea... Lan sakonak egiten ari gara alor horretan:

morfologian, sintaxian, lexiko-semantikan... Horien gainean tresnak egiten ditugu, orokorrak. Horrekin, aplikazio batzuk saiatzen gara egiten enprekin batera. Orduan, epe laburrean, OCR dokumentu zuzentzailea prestatutako dugu. Zuzentzaile ortografikoa gramatika zuzentzaile ere bilakatu nahi dugu.

■ Hala ere, gai zaila izango da hori, ezta?

Bai, gai polemikoa da. Adibidez, Frantziar, akademia kexatu da zuzentzaile gramatikak oso txarrak direla-

ko. Tira, akats oso ohikoak biltzeko asmoa bakarrik dugu guk: erlatiboak, lokailu batzuk... Interneten alorrean ere, bilatzaileen munduan ari gara lanean, eta espero dugu bi urte barru-edo zerbait ateratzea. Gehien bat intranet munduan.

■ Epe luzean itzultzaile automatikoa ere egin nahi duzue, ezta?

Bai, gure betiko asmoa da, baina oinarri sendoak behar ditugu horretarako.

■ Alor hori aurreratuta al dago beste hizkuntzetan?

Beno, zenbait alorretan dago aurreratuta. Gehienbat itzultzen laguntzeko tresna orokorrak dira daudenak, adibidez, Altavista bilatzailea, ingelesetik espainierara itzultzeko. Jakina, horren itzulpena nahiko kaskarra da; baina, batere ingelesez badakizu, horrek laguntzen dizu testua nondik nora doan jakiteko, eta interesatzen zaizun edo ez erabakitzeke. Guk ez dugu gauza puntual bat egin nahi, eta gero baztertu behar izatea. Nahiago dugu poliki joan gauzak ondo eginez.